

# «Ipuinak idazteko inspirazioa ospitaletik bertatik ateratzen dut»

**esther extremera**

erizaintzako laguntzailea eta idazlea

**Hamar urtez Osakidetzan lanean egon den honetan, pazienteek kontatutako hamaika istorio entzun ditu Esther Extremarak (Bilbo, 1971). Egunero askotariko protagonisten pasarteak ezagutzeko aukera daukanez, lantokia inspirazio-iturri bihurtu zaio. Azkenean, bizipen horietako batzuk ipuin bihurtu, eta 669. logela liburua argitaratu du.**

**Erizaintzako laguntzailea eta idazlea aldi berean. Nola uztartu daitezke bi ogibide hain ezberdin?**

Nahiz eta osasunarekin erlazionatutako ikasketak egin, nik idazteko beharra sentitzen dut. Ideia bat bururatzeko zaidan bakoitzean, hori idatzi egin behar dut. Batzuetan, ohetik altxatu eta berehala hartzen dut arkatza. Izan ere, idazketaren bidez dena ahaztu egiten dut, terapia moduko bat da niretzat.

**Noiz idatzi zenuen lehen ipuina?**

Txikitatik gustatu izan zait idaztea. Irakurri nuen lehenengo liburua *Ozeko aztia* izan zen, eta erabat maitemindu ninduen. Nik ere idatzi nahi nuela erabaki nuen, eta, eskolan, ikaskideentzako txantxazko olerkiak sortzeari ekin nion. Urteak aurrera egin ahala, gehiago eta gehiago idazten hasi nintzen. Ez dakit etxean zenbat koaderno ditudan idatzita; ez dakit ezta horietan zer jartzen duen ere, amaitu eta kutxa batean gordetzen ditudalako. Gogoan dut amona-

ri idatzitako olerki bat; bera oso barrugarria da, eta zenbait metafora eta figura literario erabilia, maitasun handiz sortu nion. Euskarazko eta gaztelaniazko zenbait ipuin- eta olerki-lehiaketa irabazi ditut urteekin, eta, gaur egun, alabari olerkiak idazten dizkiot.

**Zaletasun hori liburu bihurtu duzu, azkenean.**

Liburua berez jaio zen, alde zuretik pentsatu gabe. Ohar batzuk bilatzen ari nintzela, neure ipuin batzuk aurkitu nituen, eta horiekin liburu bat sortzea otu zitzaidan. Bizitza osoa idazten eman ostean, pentsatzen hasi nintzen ez nuela ezer plazaraturik eta zerbait argitaratzeko garaia zela.

**Nolakoak dira 669. logela liburu-ko ipuinak?**

Ipuinek ez dute zer ikusirik elkarren artean. Nire familiaren istorioak, nire pentsamenduak, bizipenak eta bidaiak hartu ditut oinarri gisa, baina badaude asmatutako beste batzuk ere. Behin, Pompeian oporretan geundela, istorio bat bururatu zitzaidan, eta, birritan pentsatu gabe, idazten hasi nintzen.

**Nondik datorkizu idazteko inspirazioa?**

Ipuinak idazteko inspirazioa ospitaletik bertatik ateratzen dut. Egunero, pazienteek gauza asko kontatzen dizkidate, eta istorio asko entzuten dira. Medikuei gaixotasunen sintomak edo osasun-arazoak aipatzen dizkiete, baina erizaintzako la-



IANIRE RENOBALÉS

guntzaileoi medikuari baino gauza gehiago kontatzen dizkigute; haien bizitza edo bizipenak, adibidez. Anekdotak horiek ipuinak asmatzeko inspirazio dira niretzat. Hor dago koska.

**Gustatuko al litzaizuke erizaintzari edo osasunari buruz idaztea?**

Nahiago dut lanetik kanpoko gaien inguruan idaztea. Hala ere, horrekin harremana duen zerbait idazteko asmoa dut; baditut ideia batzuk buruan.

**Zein da liburu bat idaztearen lanik zailena?**

Berridaztea nekeza da niretzat. Orri zati bat hartu, eta bururatzeko zaidan guztia jarraian idazten dut, baina ondoren, ideiak ordenatu egin behar dira, eta erabili nahi duzun hitz zehatz hori bilatzea da zailena. Hala ere, asko gustatzen zaizkit buruhauste horiek.

**Lehena kalean egonda, noizko bigarren liburua?**

Jada amaituta daukat, eta, behar bada, urte bukaerarako egongo da prest. Gazteentzako eleberri bat idatzi dut, gaztelaniaz. Hamaika ideia ditut buruan, baina lana eta zaletasuna bateratzea da erronka.